

## PREÁMBULO

### A.- ARTIOLA Artisautzaren Gunea

ARTIOLA Artisautzaren Gunea, entidad sin ánimo de lucro, es el resultado de mas de tres años de trabajo conjunto de Ereintza Kultur Elkarteak organizadora de la "Feria de Artesanía del País Vasco", y las asociaciones de artesanos Gabiltza y Lur Kolektiboa, hecho realidad con el apoyo material y la financiación del Ayuntamiento de Errenteria y de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Concebido como Centro de Referencia de la Artesanía con sede en el edificio Merkatuzar de Errenteria y pilotado desde el propio sector y su tejido asociativo, ARTIOLA pretende responder de forma actual a las necesidades del sector, y actuar como un espacio abierto a todos los artesanos de Euskal Herria.

ARTIOLA nace por tanto, para dinamizar la artesanía en espacios como la formación y la investigación; para impulsar un espacio expositivo de calidad que de valor al oficio artesano desde un marco cultural; y para promocionar diferentes iniciativas artesanas dinamizándolas y acompañándolas en su gestión.

### B.- Objetivo de este Premio

Con el ánimo de integrar objetos de la etnografía vasca en la sociedad del siglo XXI, ARTIOLA Artisautzaren Gunea crea el concurso "Actualizando la artesanía vasca" como una vía para conseguir que elementos inspirados en las labores tradicionales y los oficios artesanales pasen a formar parte de la vida diaria de la sociedad en años venideros.

### C.- Concurso bienal.

Este Premio nace con carácter bienal. Cada 2 años se convocará el concurso estableciendo un motivo de inspiración procedente de la tradición vasca, así como una dotación económica. En consecuencia, es posible que en cada edición puedan variar las bases del concurso y las condiciones específicas.

### D.- Obras inspiradas en el "kaiku".

En esta primera convocatoria, edición de 2013, las obras presentadas a concurso deberán estar visiblemente relacionadas con el "kaiku", recipiente que se usaba en los caseríos vascos para el ordeño de la leche de oveja y para la elaboración de la "mamia" o leche cuajada.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismo Departamentua  
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



ERRENTERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA



HERRI BIZIA  
Herri Garapenerako Zentroa

www.artiola.org  
e-mail: info@artiola.org



PREMIO  
**artiola**  
Artisautzaren Gunea  
SARIA

Euskal Artisautza Gaurkotuz  
Actualizando la Artesanía Vasca

"Kaikua oinarri"

"Inspírate en  
el kaiku"



4.500 euro, ontzi  
tradizional honekin  
lotutako objektu berri bat  
sortzeagatik

4.500 euros por crear un  
nuevo objeto relacionado  
con este recipiente  
tradicional

## ATARIKOA

### A.- ARTIOLA Artisautzaren Gunea

ARTIOLA Artisautzaren Gunea, irabazi asmorik gabeko entitatea, "Euskal Herriko Eskulangintza Azoka" antolatzen duen Ereintza Kultur Elkarteak eta Gabiltza nahiz Lur Kolektiboa artisau elkarteek hiru urtez baino gehiagoz egindako elkarlanaren emaitza da, Errenteriako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza materialari eta finantzaketari esker gauzatua. Artisautzaren erreferentziatzako gune izateko sortu da ARTIOLA, eta Errenteriako Merkatuzar eraikinean dauka egoitza. Sektoreak berak eta hura osatzen duten elkarteek bideratzen dute, eta haren helburuak dira sektorearen egungo beharrei erantzutea eta Euskal Herriko artisau orori gune ireki bat eskaintzea.

ARTIOLA, beraz, artisautzari lotutako prestakuntza, ikerkuntza eta beste arlo batzuk dinamizatzeko sortu da; artisauen ogibidea kulturaren baitan kokatuko duen kalitatezko erakustoki bat sustatzeko; artisautzako zenbait ekimen bultzatzeko, dinamizazioan eta kudeaketan lagunduz.

### B.- Sariaren xedea

Euskal etnografiaren objektuak XXI. mendeko gizartean barneratzeko asmoz, ARTIOLA Artisautzaren Guneak "Euskal artisautza gaurkotuz" saria sortu du, lan tradizioaletan eta artisautzako ogibideetan oinarritutako elementuak etorkizuneko gizartearen egunerokotasunean erabilgarri bilakatzeko bide gisa.

### C.- Bi urtez behingo lehiaketa

Sariketa hau bi urtez behin egingo da, eta deialdi bakoitzean zehaztuko da aintzat hartu beharreko inspirazio oinarria, euskal tradizioko, eta sariaren diru kopurua. Hortaz, baliteke edizio bakoitzean aldatu egitea lehiaketaren oinarriak eta baldintza espezifikoak.

### D.- Kaikua oinarri hartuta egindako lanak

Lehen deialdi honetan, 2013koan, lehiaketan parte hartuko duten lanek lotura nabarmena izan beharko dute kaikuarekin, euskal baserrietan ardiak jezteko eta mamia egiteko erabiltzen zuten ontziarekin

Kaikugilea / Artesano:  
Angel Beunza. Gerendiain (Nafarroa)

Argazkia / Foto:  
Archivo F. Leizaola

**1. Partaideak.** Adinez nagusia den edozein pertsona fisikok, edozein pertsona juridikok edo edozein taldek parte hartu ahaliko du, ogibidea, nazionalitatea edo bizilekua zeinahi dituela ere.

**2.-Lehiaketaren xedea eta lanek bete beharreko baldintzak.** Lehiaketarako lanek kaikuarekin lotutako artisautza lanak izan beharko dute, prototipo originalak eta sortu berriak, merkatuan lehendik ez daudenak eta beste lehiaketaren bateko saria irabazi ez dutenak. Lanek arreta berezia eskaini beharko diote erabilgarritasunari, birziklagarritasunari eta ekologiarene nahiz ingurumenaren errespetuari, eta segurtasuna ere kontuan hartu beharko dute, bai prototipoena, bai horien serieko fabrikazio posiblearena.

Lehiakide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkeztu ahaliko du, baldin eta guzti-guztiek betetzen badituzte oinarri hauetako baldintzak eta haietako bakoitzarekin batera beharrezko dokumentazioa aurkezten badu. Prototipoen tamainak erreala izan beharko du, eta ez dira onartuko eskalan egindako maketak. Materialak eta ekoizpeneko artisauek teknikak norberak hautatu ahaliko ditu, eta sen on izango da muga bakarera.

Lehiakideren batek aurkeztutako prototipoa patentatzeko asmoa izanez gero, aintzat hartu beharko du lehiaketan parte hartzeak legez murriztu diezaiokela patentea lortzeko aukera, patentei buruzko 11/1986 Legean ezarritakoaren arabera. Hortaz, lehiaketarako prototipoa patentatu nahi duen orok aurkeztu aurretik erregistratu beharko du.

Aldez aurretik patentatutako asmakizunak aurkeztuz gero, partaideak objektu patentatuak erabiltzeko doako baimena emango dio antolakuntzari, asmakizuna lehiaketaren testuinguruan erakutsi eta hedatu ahal izateko (ez beste ezertarako). Baimen horrek ez dio emango eskubiderik antolakuntzari lehiaketako lanean oinarritutako produktuak edo zerbitzuak bere kabuz edo hirugarren baten bidez merkaturatzeko.

**3. Lanen aurkezpena eta protokoloa.** Lanak ARTIOLA Artisautzaren Gunearen egoitzan jasoko dira (Merkatuzar Eraikina, Goiko Kalea z/g, 20100 Errenteria – Gipuzkoa), edo antolakuntzak alde zuzenarekin adierazitako tokietan, 2013ko otsailaren 25etik martxoaren 1era bitartean (biak barne), 10:00etatik 14:00etara. Antolakuntzaren egoitzan aurkeztu arte, lanaren garraioa eta segurtasuna pertsona edo talde sortzailearen erantzukizuna izango dira, baita lana hitzartutako ordutegian aurkeztea ere. Partaideak ez identifikatzearen, lan guztiek goitizena batez sinatuta edo etiketatuta egon beharko dute. Lanekin batera, partaideek gutun-azal ireki bat aurkeztuko dute, kanpoan goitizena bera idatzita eta barruan honako hauek dituela:

- Prototipoaren argibide memoria, goitizena beraz sinatua. Bertan, egileak egoki deritzon bezain xehe deskribatuko du lana, eta prototipoa diseinatzeko edo erakitzeko prozesua azaldu ahaliko du, baita lanaren ezaugarriak, berezitasunak eta epaimahaideek aintzat hartzeko modukotzat dituen beste zehazki alderdi ere.
- Beste gutun-azal txikiago bat itxita, hura ere goitizena beraz sinatua. Barruan, adierazita ageriko dira egilearen izen-abizenak (edo egileenak), helbide bat, harremanetarako telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat, eta identifikazio dokumentu baten kopia ere aurkeztu beharko da.
- 2013ko otsailaren 11 baino lehen eta lanak aurkeztu aurretik, partaideek prototipoaren fitxa tekniko bat igorri beharko dute, posta arruntez (igorlearen izen-deiturak eta helbidea zehaztu gabe atzean), ARTIOLAREN helbide honetara: Posta Kutxa 123 zk. - 20100 Errenteria (Gipuzkoa). Fitxa tekniko horretan goitizena erabili beharko dute, eta prototipoaren neurriak, gutxi gorabeherako pisua, argazkia, aseguratuko balioespen ekonomikoa adierazi beharko dituzte, eta harremanetarako telefono zenbaki bat. Balioa edo hauskortasuna dela eta, lanak tratamendu edo zaintza berezirik behar izanez gero, hori ere adierazi beharko dute fitxa teknikoan.

Antolakuntzak, jasotako prototipoen fitxa teknikoetako zehaztapenen arabera, eskubidea izango du lanak onartzeko edo baztertzeko, arrazoi hauek argudiatuta:

- Lehiaketan parte hartzeko baldintzak ez betetzea.
- Prototipoak eskatutako tratamendu berezia gehiegizkotzat edo antolakuntzak bere gain hartu ezinezkotzat jotzea.
- Prototipoaren balioespen ekonomikoa neurritz kanpokatzen edo haren aseguria antolakuntzak bere gain hartu ezinezkotzat jotzea.

**4. Epaimahaia eta epaia.** Antolakuntzak lehiaketako gaien adituak diren hiru profesional izendatuko ditu, gutxienez, epaimahairako. Epaimahaiak zenbait alderdi balioetsiko ditu, hala nola erabilgarritasuna, birziklagarritasuna eta ekologiarene nahiz ingurumenari begirako errespetua, eta segurtasuna, bai prototipoena, bai horien serieko fabrikazio posiblearena.

Epaia, 2013ko martxoaren 11tik 17rako astean, “Artisautza eta Berrikuntza” gaiari buruz Errenteriako Merkaturaz eraikinean ospatuko diren Jardunaldien barruan emango da jakitera. Partaideei behar bezala jakinaraziko zaizkie egun eta ordu zehatzak.

**5. Saria.** Saria 4.500 eurokoa izango da. Hasiera batean, sari bakarra izango da, baina epaimahaiak ahalmena izango du saria zenbait lehiakideren artean banatzeko, accesit bat edo gehiago ematea gomendatzeko eta saria esleitu gabe uzteko. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.

#### 6. Lanen tratamendua

6.1.- Lan sarituak. Lan saritua (edo sarituak) antolakuntzaren esku geratuko da, erreproduzitzeko eta merkaturatzeko eskubide guztiak egilearenak edo egileenak izango diren arren.

Lehiaketaren ondotik lan saritua batean oinarritutako produktu edo zerbitzuren bat merkaturatzen badute eta produktu horrek ez baditu betetzen oinarri hauek edo urratu egiten baditu oinarrietan islatutako printzipioak, ARTIOLA Artisautzaren Gunea eskubidea izango du komunikazio publiko bat edo gehiago aurkezteko, egoeraren berri ematearren.

6.2. Saririk gabeko lanak. Antolakuntzak eskubidea izango du lehiaketan aurkeztutako lan guztiak edo batzuk erakusketa batean edo gehiagotan erakusteko, egoitza batean edo gehiagotan, gehienez 6 hilabetez.

Partaideei behar bezala jakinaraziko zaie noiz jaso behar dituzten saririk gabeko lanak; antolakuntzaren egoitzaren atean jaso beharko dituzte, eta ez badituzte antolakuntzak ezarritako epean jasotzen, galdu egingo dute haiek eskatzeko eskubidea.

6.3. Lanak zaintzea. Antolakuntzak bermatu egingo du lanak behar bezala zainduko dituela, eta gorabeheretarako konpentsazio aseguru bat ezarriko du, fitxa teknikoan emandako balioaren arabera.

**7. Merkaturatzea bultzatzea.** Lan saritua, erakunde antolatzailea eta sariketa bera hedatzeko asmoz, ARTIOLA Artisautzaren Gunea sustatu egin nahi ditu lanak enpresa, elkarte eta enpresa sektore interesatuen artean, baita publiko ororen artean ere. Sustapen hori ideiak edo prototipoak erakusketa orokorretan edo aurkezpen zehatzetan aurkeztuz egin ahaliko da. Antolakuntzak erakusketa publikoen publikizitatea egiteko konpromisoa hartuko du.

**8. Onespena.** Partaideek oinarri hauek oso-osorik onartuko dituzte. Oinarri hauek interpretatzea beharrezko izanez gero, interpretazio hori izendatutako epaimahaiak egingo du, eta ez beste inork.

## BASES DEL CONCURSO

**1. Participantes.** Podrá participar cualquier persona física mayor de edad, o persona jurídica o colectivo, de cualquier oficio o profesión y de cualquier nacionalidad o lugar de residencia.

**2.- Objeto del concurso y requisitos de las obras.** Las obras presentadas a concurso deberán ser obras de artesanía relacionadas con el “kaiku”, prototipos originales y de nueva creación, no existentes previamente en el mercado y no premiados en otro concurso. Las obras deberán prestar especial atención a la utilidad, la reciclabilidad y el respeto a la ecología y el medio ambiente, así como a la seguridad, tanto de los prototipos como de su posterior posible fabricación en serie. Cada concursante podrá presentar una o más obras, siempre que cada una de ellas cumpla los requisitos de estas bases y la/s entregue acompañada/s de la documentación exigida. El tamaño de los prototipos deberá ajustarse a la realidad, no aceptándose maquetas a escala. Los materiales empleados y las técnicas de producción artesanales serán de libre elección, no existiendo ninguna restricción que no sean las que imponga el sentido común.

En caso de que el participante tenga intención de patentar el prototipo presentado a concurso, deberá tener en cuenta que la participación en el mismo puede conllevar la restricción legal de obtención de dicha patente, según lo dispuesto en la Ley 11/1986 sobre patentes. Por lo tanto quien tenga intención de patentar el prototipo a presentar, deberá registrarlo con antelación a la presentación al mismo.

En caso de presentar a concurso invenciones previamente patentadas, al participar en el concurso el participante otorga una licencia gratuita a la organización para poder usar el objeto patentado, a los solos efectos de exhibir la invención en el contexto del concurso y su difusión, sin que ello conceda a la organización licencia alguna para comercializar por sí o a través de terceros productos o servicios basados en la obra presentada a concurso.

**3. Presentación de las obras y protocolo.** Las obras deberán ser recibidas en la sede de ARTIOLA Artisautzaren Gunea, (Edificio Merkaturaz, Goiko Kalea s/n, 20100 Errenteria - Gipuzkoa) o donde esta organización indique previamente, entre los días 25 de febrero y 1 de marzo de 2013, ambos inclusive, en horario de 10,00 a 14,00. El transporte y la responsabilidad sobre la integridad de las obras hasta su entrega en la sede de la organización y su entrega en el horario estipulado corresponden a la persona o colectivo creador del prototipo. A fin de evitar la identificación personal del participante, cada una de las obras presentadas deberá estar firmada o etiquetada con un seudónimo, y se acompañará de un sobre abierto en cuyo exterior se recogerá el mismo seudónimo, y que en su interior contendrá:

- Memoria explicativa del prototipo, firmada con el mismo seudónimo. Consistirá en una descripción de la obra tan detallada como el autor estime apropiado, pudiendo reseñar detalle sobre el proceso de diseño o elaboración del prototipo, características, peculiaridades etc. que el autor considere relevante para ser tenida en cuenta por el jurado.
- Otro sobre menor cerrado, también firmado con el mismo seudónimo, donde deben figurar el nombre completo del autor, autora o autores/as, así como, al menos, una copia de un documento de identificación, una dirección, un teléfono de contacto y una dirección de correo electrónico.
- Antes del 11 de febrero de 2013 y previamente a la presentación de las obras, se deberá enviar por correo postal sin remite, a esta dirección de ARTIOLA: Apartado de Correos nº123 – 20100 Errenteria (Gipuzkoa), una ficha técnica del prototipo, bajo seudónimo, con sus dimensiones, peso aproximado, fotografía, valoración económica del prototipo de cara a su aseguramiento y un teléfono de contacto. En su caso, necesidad de tratamiento o conservación especial del prototipo debido a su valor o fragilidad.

La organización, a la vista de las especificaciones de la ficha técnica de los prototipos recibidos, se reserva el derecho de su admisión en base a los siguientes motivos:

- No reunir las condiciones para participar en el concurso
- Considerar que el tratamiento especial requerido por el mismo es desproporcionado o inasumible por la organización
- Entender que la valoración económica del prototipo es desproporcionada, o su aseguramiento es inasumible por la organización

**4. Jurado y veredicto.** La organización designará un jurado, compuesto por al menos tres profesionales expertos en la materia objeto del concurso.

El jurado valorará aspectos como la utilidad, reciclabilidad y el respeto a la ecología y el medio ambiente, así como la seguridad, tanto de los prototipos como de su posterior posible fabricación en serie.

El veredicto del jurado, se hará público en el transcurso de las Jornadas sobre “Artesanía e Innovación” a celebrar durante la semana del 11 al 17 de marzo de 2013 en el edificio Merkaturaz de Errenteria. Se notificará oportunamente a los participantes la hora y fecha exactas.

**5. Premio.** El premio cuenta con una dotación de 4.500 euros. En principio se establece un sólo premio, si bien el jurado tendrá la potestad de declarar el premio compartido entre uno o varios concursantes, de recomendar la incorporación de uno o más accesits, así como de declarar el premio desierto. Las resoluciones del jurado son inapelables.

#### 6. Tratamiento de las obras.

6.1.- Obras premiadas. La obra u obras premiadas quedarán en propiedad de la organización, si bien todos los derechos de reproducción y comercialización de la obra corresponden a su autor o autores. En el caso de que con posterioridad al concurso sea comercializado algún producto o servicio basado en una obra premiada, y dicho producto incumpliera estas bases o en algún sentido contraviniera los principios que se reflejan en las mismas, ARTIOLA Artisautzaren Gunea se reserva el derecho de emitir una o varias comunicaciones públicas que así lo manifiesten.

6.2. Obras no premiadas. La organización se reserva el derecho de exponer todas o parte de las obras presentadas a concurso en una o varias exposiciones, en una o varias sedes, durante un período máximo de 6 meses.

Se comunicará oportunamente a los participantes la fecha de recogida de las obras no premiadas, que se efectuará también en la puerta de la sede de esta organización. La no recogida de las obras en el plazo estipulado por la organización supondrá la pérdida del derecho de reclamación.

6.3. Conservación de las obras. La organización se asegurará de la buena conservación de las obras y de la existencia de un seguro de compensación en caso de incidencias, en función del valor atribuido en la ficha técnica.

**7. Promoción comercial.** En beneficio de la obra premiada, de la propia entidad organizadora y de la propia repercusión de estos premios, ARTIOLA Artisautzaren Gunea se propone promocionar la existencia de las obras ante las empresas, asociaciones y sectores empresariales que muestren interés, así como ante el público en general. Esta promoción podrá efectuarse mediante exposiciones generales o presentaciones concretas de las ideas o los prototipos presentados. La organización se compromete a dar publicidad a las exposiciones públicas.

**8. Aceptación.** Participar en el concurso implica la plena aceptación de las presentes bases. En caso de resultar necesaria interpretación de las mismas, dicha interpretación corresponderá exclusivamente al jurado designado.